

	<b>OÑATIKO UDALA</b> Erregistro Data	
	2016 IRA 26	
SARRERA	IRTEERA	
2239		

### JAIXETAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: JAI PAREKIDEEN ALDE

Oñatiko udal batzak, osotasunean, jaiak era baketsu, alai eta parte hartzailean bizitzeko deia luzatu nahi dizuegu herritarrei. Jai eredu inklusiboa, anitza, parte-hartzea ahalbidetzen duena, errespetuan oinarritua, librea eta berdintasunezkoa da udalbatzak nahi duen jai-eredua, sexu-eraso bat ere izango ez duena.

Sexu-erasoak pertsonen askatasunaren kontrako eraso zuzenak dira eta pertsonen duintasunaren aurkakoak eta onartezinak. Jaiak libre eta seguru bizi behar dira, horregatik ez dugu onartzen erasotzaile batzuk, jai inpunitate gune bilakatu nahi izatea, esparru hauetan erasoan jarraitzeko. Erasoa ez dira jolas dibertigarri eta hutsal baten ondorio, indarkeria matxistaren ondorio baizik. Horregatik, gertakari horiei aurre egiteko gizarte osoak konpromiso aktiboa har dezan eskatzen dio Udalbatzak herriari. Udalak ere hala egingo du. Ustezko gertaera txiki zein larriak, guztiak, gure herritik eta jaietatik desagerrarazteko erasoak dira. Ustezko gertaera txikienen aurrean erantzuten badugu, muturrekoagoak diren egoerak prebenitzen lagunduko dugu. Beraz, jaietan sexu-eraso, sexista edo jarrera matxistarik ikusiz gero, ez begiratu beste aldera eta aurre egin. Denon ardura baita.

Hartara, udalbatzak emakumeen aurkako indarkeriari urteko 365 egunetan aurre egin behar zaiola uste du, berdintasuna landuz, gerta ez daitezkeen neurriak aktibatuz, eta eraso gertatuz gero salatuz, ez bakarrik jaietan. Hortaz, urteko egun guztietan, herritarrok, udalean, lantokietan, herriko edozein gunetan konpromiso aktiboari eutsi diezaikegu; emakumeen eta gizonen artean indarkeriarik gabeko eta berdintasunezko harremanen alde eginez. Honekin batera, jaietan egongo diren ekintzetan eta ekitaldietan parte hartzera ere gonbidatzen zaituztegu.

Zalantzarik gabe jaiak oñatiarrok, emakume eta gizonak, ondo pasatzeko eta alai egoteko dira; eta udalbatzak azpimarratu gura du jaiak modu positiboan bizitzeko egun hauetan ere, zaintza eta etxeko lanen ardurak, erantzunkidetasunean, denon artean banatzeko.

Ez(etz) beti Ezetz izateko eta jaiak jai baino ez izateko, alaitasunez, erasorik gabe, erantzunkidetasunean eta errespetuan ondo pasatzeko. Bai delako bai. Mezuak Oñatiko jaietarako ez ezik, urte guztirako balio behar du. **GOZATU JAIXAK, BEJONDEIZUELA!**

